

## Mikoleta'ren euskereak eta gaur Bizkaya'n darabilgunak ¿ze alde ete-dauke?

---

Bizkaiko euskerea irakasteko asmuz, 1653'gañen urtean euskalizti laburtxu bat atondu eban Mikoleta'k, Gaztelera idatzita dagoan euskalizti oni «Modo breve de aprender la lengua Vizcayna» deritxo, ta Mikoleta'k bere eskuz egindako idaz-lana, «British Museum»'en dago. Lan onen irarkaldi bi egin dira: 1881'gañen urtean Bartzelona'ko «Revista de Ciencias Históricas» eritxonak argitaldu eban lenengoz: gero Dodgson jaunak, oartxu batzuk ezarita, bariro irari eban Sebiñan 1897'gañen urtean. Lenengo irarkaldiak oker eta uts asko ei-daukaz; bigarenean be gitxi batzuk ba-dagoz. Begien aurrean daukaguna auxe da, ta zazpi ateletan berezi gegike.

Lenengo atalean «izen, eraskin eta izenordekoetzaz» diardu Mikoleta'k.

Bigarenean, «egin, izan eta egon» aditzen irabiakerea dakar.

Irugarena, iztegi laburtxua da.

Iztegi onen jarai Dodgson'en oar batzuk datorz.

Boskaren atalak alkar-izketa luzetxua, euskal-zenbakera ta asteko egunen izenak dakarz.

Seigarena euskal-olerki edo izneurtuetzaz da.

Zazpigarenean, Mikoleta'k bere lan onetan darabiltzan 163 aditz-irabiakera dakusguz: bata-bestearen jarai ta ur'engorik ur'engora ipiñi ebazan Dodgson jaunak, oitura ebanez.

\*  
\* \*

Mikoleta'ren euskalizti au laburegia da; baña euskera izpirik be ez ekientzat idatzi ebala deritxat: oneik, geyenez, laburzaleak, izaten dira-ta, uts ori parkatu bear yako. Lan onetan agiri direan beste uts batzuk ain erez parkatu lekikeozanik eztot uste.

«Euskerazko izen eta eraskin guztien azken-izkia edo *a* edo *ak*

dala oartu bedi: aitatzen dogun gauzea bakara ba-da, izen eta eraskin guztiak, *a'gaz* amaitu doaz: gauza bat baño geyago adierazo nai ba-doguz, orduan amaya *ak* izaten da». Ori diño Mikoleta'k: mugitza berezten jakin ba'leu, olakorik ez eban esango.

«Gauza bi naiz geyago norbaitenak direala adierazo nai dogunean —diño Mikoleta'k—jabea bat izan aren, bere gauzok asko diralako, jabs oren izena euskeraz batzueno zenbakian ipinten dogu, eta bestera, gauza bat norbaitzuen dala adierazteko, jabe orein izena euskeraz banango zenbakian doa». Onetan be oker dago Mikoleta. Gauzai dagokien mugitza, aen jabeai ezarten dautsegula ta beste barik, oneina zala uste izan eban eta Mikoleta'ren oker ori ortik dator. Mikoleta'k darakuskuzan eta gaur darabilguzan izenordekoak bardiñak dira: oraitik be *gu* ta *guk'en* ondoan «*guk*» be ba-dakar bein beintzat.

\*  
\* \*

Beste aditzik geyenen laguntzale «egin» dala diño ta onen irabiakera lenen dakar. Adizpiakera batzuetan «n» baten utsa oartzen da: «*zu* ta *zuek*»'en adizpiakerak bardiñak dira: etorkizuna igaroagaz nasteen adierazten dauan aldia, Mikoleta'k dakaren lez gaur iñon be eztarabilgu: aldirik igaroena be berarizkoa da.

egiten	<table style="border-collapse: collapse;"> <tr><td style="padding: 2px 5px;">dot (!)</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">dosu</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">dau</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">dogu</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">dosu</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">daude</td></tr> </table>	dot (!)	dosu	dau	dogu	dosu	daude	egin	<table style="border-collapse: collapse;"> <tr><td style="padding: 2px 5px;">aldot</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">aldosu</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">aldau</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">aldogu</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">alosu</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">aldaude</td></tr> </table>	aldot	aldosu	aldau	aldogu	alosu	aldaude	egiten	<table style="border-collapse: collapse;"> <tr><td style="padding: 2px 5px;">nenduá</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">sendua</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">euea</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">gendua (2)</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">senduá</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">eudeá</td></tr> </table>	nenduá	sendua	euea	gendua (2)	senduá	eudeá	egin	<table style="border-collapse: collapse;"> <tr><td style="padding: 2px 5px;">egian</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">sengian</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">egia</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">gengian</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">sengian</td></tr> <tr><td style="padding: 2px 5px;">egien</td></tr> </table>	egian	sengian	egia	gengian	sengian	egien
dot (!)																															
dosu																															
dau																															
dogu																															
dosu																															
daude																															
aldot																															
aldosu																															
aldau																															
aldogu																															
alosu																															
aldaude																															
nenduá																															
sendua																															
euea																															
gendua (2)																															
senduá																															
eudeá																															
egian																															
sengian																															
egia																															
gengian																															
sengian																															
egien																															

Egiten dot, hago; egin dot, hice; egin-go dot, haré... Egin aldot, habré hecho, dala diño Mikoleta'k; gaur eguneko euskaldunentzat «puedo hacerlo» edo olakoren bat da ori: «habré hecho» danik, iñon eleuke uste izango.

Egiten nenduá, «*yo hacía*» ta enparauetan azentoa dirudian ori, «*n*»ren utsunea adierazteko maratxua ¿ez ete-da gero? Nik «eguin eguian» dakar Mikoleta'k; baña «egin negian» dala edonok daki:

---

(1) Eguitendot, eguindot, eguin-godot... idatzi eban Mikoleta'k laburtxuago esatearen aldatu dot Mikoleta'ren idazkera ori.  
 (2) Dodgson'en irarkaldiak «guendu» diño; baña Mikoleta'ren esku-idaztiak «guenduá» ei-dakar.

«n» bi alkararen jarai etorzan eta bat be naiko zalakoan-edo, Mikoleta'k bigarrenik ez eban idatzi. Nik «egin negian» ori «yo había hecho» dala diñosku: adizpiakera orek, gaur beintzat, besterik esan nai dau.

Berarizko agintz-erarik ekañi be eztakar Mikoleta'k; baña onenak diran adizpiakera batzuk menpe-eran sartzen dauz eta onelan era biok nasteen darabiltz. Baldintz-ereak be gaur darabilgunaren antz gitxi dauko.

Yo haga	{ dagida (1)	Yo hiciera	{ banengi	Yo hubiera	{ nenduá (1)
egin	{ dagisua	{ o hiciese	{ besengi	{ he cho	{ sendua
	{  begi	{ egin	{  balegi	{ egingo	{ euea
	{  daygua	{  begengi	{  basengic (3)	{  gendua	{ sendukeo (4)
	{  egisue	{  balegie (3)	{  eudea		
	{  begie				

Menpe-erako adizpiakerok—diño Mikoleta'k—agintz-eran laburtuta be erabilten dira, «egin» aurretik ipiñi barik, onelan: dagida; egisu, begi, daygua, egisue, begie. Baldintz-erea «si yo hiciera o hiciese, etc.» gaur eriak egingo baneu... esan daroa: egin banengian... «si yo hiciere.....» dala deritxat.

### IZAN (MIKOLETA'K, YSAN)

soy	{ nax	habré sido	{ alnax	era	{ ninsá	había sido	{ ninsan	
fuí, ysan	{ sará	ysan	{ alsará	sineá	s á	ysan	{ sineá	
	{ dá		{ alda				{ s an	
seré, ysango	{ gará	ysan	{ algará	ginean	sinean	ysan	{ ginean	
	{ sará		{ alsará				{ syrean	{ sinean
	{ dirá		{ aldirá				{ syrean	{ syreá

Kapanaga'k lez Mikoleta'k be «nax» idatzi eban ¿«naiz»'tik «naz»-erako bidea ete-da? Etorkizun-aldian «ysangonas» diño Mikoleta'k.

Aditz onetan be «zu ta zuek» adizpiakera bardiñak daukez: «su sará. suec sará». Bear bada, «zuek» sortu ta gero be, gaur izenorde onegaz darabilguzan adizpiakerak sortu orduko, aldixuren bat

(1) Beste adizpiakera batzuetan lez oneitan be «n»'ren ordezeko maratxuaren utsa oartzen dogu.

(2) «Egisue» ori, zuek'eri dagokion «e» gañeratu eutsan Mikoleta'k.

(3) Dodgson, en irarkaldiak «vasenguic, valeguic» diño; Mikoleta'ren esku-idaztiak «baleguic» ei-dakar; bestea be «basengie» dala egingo ñeuke.

(4) «Senduqueo» ori ora zelan etori dan eztakit: jasale-artzaledun adizpiakera dirudi.

igaro zan eta Mikoleta'ren euskalizti au aldi orentatxe idatzia izan daiteke; baña gauza ziu'rik eztakigu. Gaur «habré sido...» adierazteko ysan { alnax, alsará... ta olako adizpiakerarik iñok eztarabil.

Aldi igaroan adizpiakera oneik opatzen dauskuz Mikoleta'k: «ninsá, sineá, sá, ginean, sinean, syrean» eta gero, oneik besteok: ysan { ninsan, sineá, san, ginean, sinean, syreá». Amaitzat «n»'rik eztaukenak, azentua daroe ta makatxuaren orde z dagoala deritxat.

Yo sea.....	{ naxá sareá vis gareá sara (suec) virá		si yo fuera..	{ banins (1) baziná balis baginá basiná balirá
si yo fuere..	{ banax basará badá bagará basará badira		hubiera sido	{ ysatekeá sintekea satekea ginsatekea sinatekeá sitekean
			ysan . . . . .	

Agintz eta menpe-erak emen be nastean dakarz Mikoleta'k. Gaur egunen Bizkaya'n olako adizpiakerarik eztarabilgu; baña nozbait erabili ziran, esakun zaretan irakurten dogunez: «Aita asabai etxi ta gara gu on beti. Baldintz-erea: vanins, vaziná, valis, baguiná, vasiná, valirá, idazkeran izan ezik, gaur be aenbaten darabilgu; baña banax, basará ta enparauok gaur «si yo fuere» baño zeatzago «si soy...» esan nai dabe. «Yo hubiera sido» gaur «izango nintzan edo nintzatekean» esaten dogu: «ysan ysatekeá» ta bere lagun oreikaz «hubiera sido» baño obeto «hubiera podido ser» edo olakoren bat adierazoko geuke. «N»'gaz azkenengoa bakarik amaitzen da: baña enparauak be bear leukie: lenengoa, osterá, aúetik be ba'leroa, askozaz obeto legoke.

## EGON

Yo estoy, etc.: nago, sagos, dago, gagos, sagos, dagos.

Yo esté, etc.: nagoá, sagos, bego, gagoseá, sagos (suec) begos.

(I) Adizpiakerok, bat izan ezik beste guztiak, «v»'gaz dakarz Mikoleta'k.

Emen be «zu ta zuek» adizpiakera bardiña dauke: «su sagos, suec sagos». Agintz eta mepe-erak nastean dakarz. Aditz onegaz *pasiva*'k adierazten dirala ta bere laguntzale «izan» irabiatua dala diñosku Mikoleta'k. Adibidetzat auxe dakar: Juan fué herido de Pedro, Joane eriduric egon ysandá Peru-ganic. Esakera ori Mikoleta'k asmau eban eta gero euskaldunei entzun eutsela ames-egin. Eriak orelan egundo esan dauanik eztot uste.

## IZTEGI LABURÁ

Ainbat itz erderatik artuak dira; baña euskalitzak be ezтира gitxi. Batzuk idazleak baño eztarabílez gaur, eriak aitzu edo egin ditu-ta; beste batzuk eriak be ba-darabiltz, baña pizkaren bat aldatuta.

Mikoleta'k sari abots bardiña era bitara edo irutara idazten dau-ta, itz batzuen oguzkerea zelakoa zan ziur ezin jakin geike. Gaur darabilgun «x»'en orde z bein-edo-bein «g» agiri-da: esaterako, agea = axea, egildu = exildu, egiltasun = exiltasun, erigigi=erixigi. X bera be iru abotsen ikura da; batzuetan «z ta s»'ren orde z dago: nax, nox: axea, kaxea, gayxoa; beste batzuetan Bizkai'ko «j»'ren orde z: xauna, xari, xausi, xosi, xoc (yok), xasu (yatzu) xoango.

Gaur «r» bigunaz oguzten doguzan itz batzuk gogoraz eta gogoraz oguzten doguzan beste batzuk bigunaz idatzi ebazan Mikoleta'k: angelua, aretxa, surikoa, kerexea, garagara, okarana, gero, liburuá, eroa, sura (zura) deungaro, madaria, atera, etoan, beroago, yru, amayru eta beste geyago (1). Bestera: aurretik, buruntzia, baruan saratu, asseratu (baña asseré) garagaryla, goringoa, negaren puluak, belaria, amaratza, lurean, orelan, piperak, essari (ezari) ta abar. Beste batzuetan gogora ta biguna tokiz aldatzen ditu: burukoratzá, berori, berorek.....

«Z»'ren orde z «s» auréz idazten dau Mikoleta'k: betasala, eguskia, esekoa (izekoa), es, estia, ikuskea, sana, sara, sesena, suek, suena. «S»'ren orde z ç, bein edo bein: eroçi. Ts, oso gitxitan darabil; tz, bein bez. Atsoa (anciana), itsasoa (mar), etse-a (casa); baña beste bein «esera» dakar, «etxera»'ren orde z. Geyenez abots oreik adierazteko, «s, ss, ç edo z» idazten dau Mikoleta'k: asegin, assegin, azegin, asso, asserengo, assi, arsa, ausso, auza, balsa, basuk, bassuok,

(1) rr bikotxaz idatzita dagoz eta irarutsa dala çnok siñestu?

bioza, bisza ta biza, basaunsa, ensun, enessat, ekargussu, eskonseá, ereinosa, eupaza, gaza (gatzá), gilsea, isi (itxi), isua, insaurá, lozea, maza, mazoria, ossein, osza (otsa), ossa (otza), sorsi, unçea, ume-surza, usa, usitu, eta or'elan beste askotan be. Ori dala-ta, itzen oguzkerea aldatu dan ala ez jakiteko, Mikoleta'ren euskalizti au aintzat ezin artu geike.

Aur'erago esan dodanez, itz askotxu agiri-agirian erderatikoak dira; baña or'eitatik batzuk gaur eztarabilguzalako ta beste batzuk aldakuntzaren bat euki dabelako, Mikoleta'k berak dakartzan lez ber'idatziko dodaz. Ona emen aipagar'ienak:

susculdu, abrasar  
yrigui, abrir  
Aytea-obeá (1), abuelo  
aurrá, adelante  
aurratu, adelantar  
lagunena, ajeno?  
yçato (irato), ahogar  
ynudea, aña  
ugasabea, ama de criados  
onerechi, amar  
orea ysarri (ezarri), amasar  
ebili, andar  
yaz, antaño  
goratu, alzar  
bustin gorria, almagre  
ugazume-a, antenado  
arenegun, anteayer  
beguis eguin, aojar  
guratu, apetecer  
gure-a, apetito  
carran, apriesa  
arreacha, árbol  
exetu, arder  
goria, ardor  
errequea, arroya  
aguirtu, asomar  
barsuna, badil

guimaleta, barreno  
borta, bastardo  
mochu eguin, besar  
surricoa, blanca  
ydoro, buscar?  
gauonsa, buho  
ulle-a (ule), cabello  
aldian, veyn, cada vez?  
egildu (exildu), callar  
aria ta arquia, carnero  
gueli-a, carne de vaca  
ysi (itxi), cerrar  
etse-a, casa  
arguizagui-a, cera  
yçutu (itsutu), cegar  
yduria, cisco  
quili-a, cosquilla  
esaun, conocer  
ari-a, cordero?  
cañibeta, cuchillo.  
soygui-a (ziogi), cuerdo  
dustis, del todo  
escoro-a (erkoro), pulgar  
achi-candre-a, meñique.  
urtigui, derribar  
aguirtu, descubrir  
eronsi, desnudar

---

(1) Mikoleta'ren esku-idaztiak «ayta obeá» ei-diño.

ugaurcu-a, devanaderas  
 echi (itxi), dejar  
 esarri, echar  
 buturra, empeine  
 deungatu, empeorar  
 eriguigui (erixigi), encender  
 beatu, enterrar  
 estalau, encubrir  
 ycuscatu (ikuzkatu), ensuciar  
 osatu, enterar  
 epildu, entibiar  
 ostu, esconder  
 ychadon, esperar  
 arrendan, entonces  
 anaxe-a, hermano  
 cortaysa, estiércol  
 cortaystu, estercolar  
 astul eguin, estornudar  
 xo, fornicar  
 becoguia (bekoki), frente  
 atetic, fuera  
 gure-a, gana, antojo  
 yrapaçi, ganar  
 caco-a, garrabato =  
 kako-a, garabato  
 zayna, grasa de peces  
 avasuse-a, granizo  
 ydoro, hallar  
 erdiratu, hender  
 veyñac, heces  
 pujesa, higa  
 vgasseme-a, hijastro  
 ugas alabe-a, hijastra  
 firua, hilo  
 betetu, henchir  
 sugate-a, cocina  
 barrachico-a, hongo  
 arauñce-a, huevo

ynez eguin, huir  
 berarra, yerba  
 jollare-a (1), lagar  
 negarenpulluac, lágrimas  
 vllea, lana?  
 ycusi (ikuzi), lavar (ropa)  
 yracurri, leer  
 xaygui, levantarse  
 misquea, liga para cazar  
 viriac, livianos  
 erro-a, loco  
 eratasun-a, locura  
 guey-emon, llamar  
 vetetu, llenar  
 surra (zur), madera  
 çeatu, majar  
 samauac, manteles  
 ene-a, cosa mía  
 miracuru-a, milagro  
 adicune-a, mirada  
 aditu, mirar  
 çeatu, moler?  
 arbia, nabo  
 es-ynior, nadie  
 erurra, nieve  
 s e y ñ a , n i ñ o  
 seyñtasun-a, niñería  
 onssa (onsia) nave  
 gauer(r)orta, noche prima  
 vsena, nombre  
 guizonerayle-a, homicida  
 caya, orilla (de mar o río)  
 bale-a, vizarra, ova (planta acuá-  
 tica)  
 vaqueoso-a, pacífico  
 vgas-ayta, padrastró  
 arra, palmo  
 valarrico-a, pan sin cerner salvados

---

(I) Esku-idaztiak «Tollarea» ei-dakar.

vocadera, pañuçuelo	adegui-a, sien
ayde-a, pariente	vscoya, sieso
seyña eguin, parir	egiltasun-a (exiltasun-a), silencio
ygaro, pasar	yrunsi, sorber?
deungago, peor	igayere-a, subida
vstia ysan, pensar	selambayst, según?
yduna, pescuezo	au ea (aube), suegra
xeme-a, pez	ycusque-a, sucio
sanco-a, pierna	xatoste-a, tarde, tiempo después
urraguiña, platero	de comer
ytaundu, preguntar	eugui, tener
ysorrea, preñez	eseco-a, tía
ysorratu, empreñar	buruco-a, toca
ernaldu, empreñar (en las bestias)	essarri, tirar
amarasa, pulpo	vrde-a, lechón
buturra, puño	dusti-a, todo
barritu, renovar	vrdayonso-a, torrezno
epecha, ruy-señor?	eude-a, vde-a, verano
saoje-a, salvia	azebari-a, zorra
ovi-a, sepultura	luqui-a, íd.

\*  
\* \*

Mikoleta'ren idazti au ulertzeko bear diran oaråk, bakotxa bere tokian egin eta egingo dodaz-ta, Dodgson jaunarenak berariz aitatu bearik eztago. Alkarizketa luzetxua dakar Mikoleta'k; emen be itz eta esakerarik oargalienak baño eztodaz aitatuko. Aditz irabiatua gerorako itxi-ta, enparauak lenengo.

icusle (ikuzle), lavandera; icuscatasun (ikuzkatasun), suciedad; loo (lo), sueño; leyen mocoená, de carámbanos: yzal baga, sin asco; erasuna, tema, locura; salsayn (zaltzain), lacayo; mandaco, mula; megach, delgado; launti, llano; gasaba (ugazaba), amo; cochiña; almohada; botador, pañizuelo; ylena, lunes; dusti, deusti, todo, ateti, fuera; erasti, errasti, bien; obato, mejor; obago, íd.; obena, lo mejor; aranguño, araynguño, aún; deunsuro (deungaro izan bear leuke), mal; sobrea baxe (baño); sorci baxe; balio daue *baxin* geyago; sarsayten da; ydarayten; galsayteco; ysayteco; urgazi, ayudar. urgasteco: oyñen ganean loo eteco (egiteko); ydoro asquero; lagunetan xoangonas.



Naystot (eztot nai) yricassu, abre; ecussu, ve; ecussu, mira; adisate, mira; gueldisate, quedaos; garvi essasus ene erropa dustiac eta yminsus; obeda nic *diñoda* (1) gusurra; ara emen non *datorre* ycuslea: Xauná, Flandesic etorri *sirea*: Seynbatan *eve* berofek escritorioau? Balio *daue* baxin geyago: Se curiaso *dagoá*: garbitu *daygua* guel au: Ichosu atera *dayda* contua: bada dobladu *daygua*: *daguida* ondo ymini bissarrau. Bada guichiago adituco sinate basina aen adisquidea onena, seyn ni *naxa*. Nolan esan *dou* (dozu) bostac xodaudela? Noric ecarri *dous* (dozuz) pastel-hoc? Xansi eguidaus (egidazuz), eta onelan beste batzuetan be. Bansuc (ba-dantzuk), saycora (xaygui gora): goasean campora: nic vostac containcean (nebazan): non eguin *sidi* (zan): Esaneroeala legues, por lo que decía, esadosu (esadazu) seyn da (dan): beuque eurac osasun ori: adituco sinate (mirariais); gueyenasu assoari: (dei-egiozu atsoari). Ori errasti guey emondite..... Bay xauna etendaude (egiten daude); mutil, ecarguc almorzua *vrten artean* (antes que salgamos); Edandaysu ostera, se esteysu gachic. (Beberá V. M. otra, que no le hará mal). Ta non ydorocogu ona ysandinbat? (Y dónde hallaremos una (mujer) que sea buena?) Asco dago onac direanic. Erasti xarridites (bien pueden sentarse); Xarribidi mapuruan; Errasti xandays yzal baga: Erasti bustedite (busti dite) berori. Caxan gordebite. Ori eguinday gozo derechalaco ardaoac. (Eso harálo por lo bien que le sabe el vino). Memoria ene gasaben trapu ycusleac eroan *eguisanena* (ebazanena). «Amargaren»'en ordez amargaun diño bein: baña irarutsa dirudi.

Zenbakien eta asteko egunen izenak gaur darabilguzanak dira; idazkeran izan ezik, alderik eztago. «Amabi ilabeteak be ba-daukez euren izenak euskeraz; baña gaur egunean—diño Mikoleta'k—izen oreik baseñitarak baño eztarabílez; uritarok orein ordez gastele-razkoak dabilguz-ta, emen zetan aitatu eztodaz». Eta aitatu barik izten dauz. «Yai-egunetan neskatoak abestu daroezan «lelori, lelori» oreik alde batera itxi-ta, beste izneurkera bi dagoz euskeraz—diño Mikoleta'k—: geyagorik eztagoanik eztiñot; baña oituenak orexek biok dirala, bai: bitzuok gaztelerazko «romance»'en antza dauke ta bigaren erako neurtitzak lenengokoak baño luzetxuagoak izatea baño beste alderik, ez. Olerkari batzuk oraintsu erderazko âpaldiak eredutzat artuta, euskeraz be ainbat izneurkera bari darabílez; baña izneurkera ta âpaldiok euskaldunentzat ulergatxak dira-ta, oretan diarduenok ospe gitxiko lana dagie». Gai onetzaz Mikoleta'k

(1) Aditz onek, eta onen jarai doozanak «n»'gaz amaitu bear leukiela deritxat.

diñoan ori egia danik eztot uste. Dana dala, Mikoleta'ren euskereak eta gaur darabilgunak ze alde dauken oartzea baño beste asmurik eztaukat-eta, izneurkerok alde batera itxirik, itz eta esakera batzuk aitatuko dodaz. Ona emen: Lar adi vasagoças (ba-zagokaz), si mucho le mira V: Alcar on badereche, si uno al otro (se) quieren bien; asserengo guino, hasta el postrero: Dempora baten on oynerechu, baya mudatu nindia, serren penatan vior equida; emon senguidan gloria. En un tiempo (te) quise bien, pero ya me mudé: que la gloria que me diste, en pena se me volvió. Isana, el ser: esan senguida beste gaytik esneydysula trucadu, (me) dijiste (que) por otro no me trocaras; Baya besteren astu (1) senguia, nigasco on erechia, pero por otro olvidaste el amor que tenías conmigo; nic nolaberri sufriessa su seuc bere seure penea, como yo sufro sufre tú también tu pena.

Noz-edo-bein Mikoleta'k gipuzkoerea darabil; adarra nola; urtengo dosu orregas Erreguec bere alcavalacas nola; garvi essasus; nic nola berri sufriessa su. «Tik» atzizkiaren orde z «ric» auzez darabil; ori da bat yru gausetario; Flandesic etorri sirea; Italiario etorriario: Au ta sillac etorsan Salamancario; noric ecarri dous (dozuz?). Beste batzuetan «tik, rik»'en orde z «rean»; urrerean, de cerca; onerean, de aquí; oerean xayquiteco, para levantarse de la cama; bira (dira) gure auso ederrenean (edererean)? ¿Son de nuestra vecina, la hermosa? garvienean, de la más limpia; esarsu surierean, echa de lo blanco; betor edaten beste beyñatan calabriada-reonic. «Ez»'en orde z se (ze); Esteusut esan sedeguidisula ecarri? No os he dicho que no me traigais? Xauna, sebegui ori esan, Señor, no diga eso. Nic guradot edan vidriosco copa onetati se veste gustietati. Esakera onetan lez beste askotan be «tik»'en orde z «ti» darabil.

Dodgson jaunak Mikoleta'ren lan onetan aurkitu ebazan 163 adizpiakerak, urengoirik-urengora ipiñita dagoz bere azkenengo orian. Guztiak adizpiakera bereziak diranik eneuke esango; oargarienak auferago aiatatu dodaz; enparauak, ezaunak dira-ta, emen beridatzi bearik eztago.

Mikoleta'ren euskalizti au arduraz egindako lana danik ezin esan negike; baño gure artean egin diranetatik antxiñakoena berau dalako, aintzat artzekoa dala uste dot.

## EGUSKITZA

(1) Esku-idaztiak «artu» ei-diño.